

DIRU-ITURRIAK

Diru sarrerak gure produktua aurrera eraman ahal izateko enpresari sartuko zaion diru kantitateari esaten zaio. Atal honetan guk izango ditugun diru sarrerak zehaztu eta azalduko ditugu, eta bi mota desberdinetan banatuko ditugu: hasierakoak eta hilabetekoak.



Hasierako diru sarrerak produktua sortu berri denean ematen direnei esaten zaie, hau da, behin bakarrik ematen direnak, kasu honetan, urtarileko hilabetean emango dira. Hauek ondorengoak dira:

DIRU SARRERAK	KOPURUA
Udaletxea	500€
Greenpeace	2.000€
Ecoembes	5.000€
Taldekie bakoitzak jarritakoa	5.000€ → 20.000€
GUZTIRA	27.500€

Lehenengo hilabeteko diru sarrerak, edozein enpresatan bezala, handiagoak dira; izan ere, gure kanalek proiektuaren hasieran dirua baliatuko digutela adostu baitugu.

Hauek, bestalde, hilabetero izango ditugun diru sarrerak dira, hau da, hilabetero gure kontuan sartzen den diru kantitate finkoa:

HILABETEKO DIRU SARRERAK	KOPURUA
Admob aplikazio barruko publizitatea https://admob.google.com/home/	IOS → 400€ Android → 500€
Bataz besteko deskarga bakoitzekoa <ul style="list-style-type: none">- 60.000 deskarga urtean Goggle Play (bakoitzak 0'20€)- 40.000 deskarga urtean App Store (bakoitzak 0,20€)	$60.000 / 12 = 5.000$ deskarga/hilabete $5.000 \cdot 0,20 \rightarrow$ 1000€ $40.000/12 = 3300$ deskarga/hilabete $3300 \cdot 0,20 \rightarrow$ 660€
Botilak (bakoitzak 20€) <ul style="list-style-type: none">- 75 botila → 700€-ko kostu	$(20 \cdot 75) - 700 =$ 800€
GUZTIRA	3360€/hilabete → 40.320€/urte

Lehenik eta behin, Admob enpresak askok erabiltzen duten aplikazio bat da. Bere zeregina aplikazioetan publizitatea sartzea da. Sartzen den publizitate kantitatearen arabera, enpresari diru kantitate gehiago ala gutxaigo ematen diote.

Bigarrenik, aurreko ataletan aipatu izan dugun bezala, gure aplikazioa dohakoa izango da, behar sozial dela deritzogulako, eta horrenbestez, denok aukera izan beharko genukeelako honen erabilera izatea. Hala ere, App Store eta Goggle Play plataformek deskarga bakoitzeko aplikazioaren jabeai dirua ematen diete, aurreko taulan ikus daitekeen bezala.

Hasieran izango ditugun diru sarrera totalak **27.500€**-koak izango dira, eta hilabete bakoitzeko kostuak kostuan harturik, urtean **40.320€** irabaziko ditugu. Diru honekin nahikoa izango dugu gure aplikazioa aurrera emateko.

